

ASTEKO GAIA

HEZKUNTZA

# Merezi al du 4 urterekin ingelesa ikasten hastea?

Hego Euskal Herriko ikastetxeetan haurrak 4 urterekin hasten dira ingelesa ikasten. Asko akademiara joaten dira. Urtebeteko umeak hartzen dituzten akademiak badira.

Europan, Espainiako Estatua da 4 urterekin ingelesa ikasten hastea orokortua dagoen herrialde bakarra. 4 urtekoek 8koek baino hobeto ikasten al dute? Errentagarria al da hain goiz hastea? Zalantza handiak dituzte orriotan iritzia eman duten Itziar Elorzak, Uri Ruiz Bikandik eta Jasone Cenozek.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |



DANI BLANCO


JASONE CENOZ EHU<sup>n</sup> Hezkuntza Zientzietan katedraduna da. EAEko hezkuntza sisteman, eleaniztasuna eta adinari buruzko ikerketa bukatu zuen bere taldeak 2004. urtean. Gaur egun Hego Euskal Herrian egin ezingo litzatekeen lana burutu zuten: ingelesa ikasten 4 urterekin, 8 urterekin eta 11 urterekin hasi ziren ikasleak hartu zituzten “akuri”. Gutxi gorabehera bost ikasturte igaro eta

**Landaberri ikastolako (Lasarte-Oria) haurrak ingelesa ikasten.**

gero, 9, 13 eta 16 urte zituztela ingeles azterketa egin zieten. Beste bi proba ere egin zituzkien: adin talde bakoitzak 12 urte zituenean eta 16 zeuzkanean.

Zein dira ikerketaren emaitzak? 4 urterekin hasitakoek abantaila izan al dute?. “Hobekuntza pixka bat nabaritu dugu, baina pixka bat, nahiko mugatua da ikasten dena. Ez da panazea, ez dago magiarik”. Alegia, ez dago

## Europako ikasleek ingelesez duten maila



Europako haur gehienak baino lehenago hasi ingelesa ikasten eta haiek baino maila kaskarragoa. Jasone Cenozen ustez, emaitzak azaltzeko aldagai gehiago hartu behar dira kontuan. Honela dio: “Espainia oso itxia izan da Francoren garaian eta bitartean beste herrialdeetako gurasoek bidaiatu eta ingelesa ikasi dute. Beste kontu bat: Italian, Alemanian eta Espainian ez, baina Portugalen eta Danimarkan adibidez, filmak bikoiztu gabe ikusten dituzte, asko ingelesez. Bideo-jokoekin antzeko zerbait gertatzen da: ume euskaldunak gaztelaniaz dauzka eta daniarrak aldiz ingelesez. Beste aldagai bat: Europako hizkuntza batzuk linguistikoki ingelesetik hurbilago daude”.

pentsatzerik 4 urterekin hasten direlako goi mailako hiztun bihurtuko direnik. Bi osagai azpimarratu ditu Cenozek. Batetik, ingelesa atzerriko hizkuntza da gure ikastetxeetan, umeek ez dute entzuten adibidez kalean parra-parra, ez dute lagunekin erabiltzen, telebistan edo bideo-jokoetan ez da ohikoa. Bestetik, eskolan bi orduz baino ez dira aritzen ingelesa ikasten, beste kontu bat da akademiara edo udalekuetara doazen.

Cenozek adierazi digunez, AEB eta Britainia Handiko hainbat ikerketak erakusten dute etorkin umeek gurasoek baino hobeto ikasten dutela atzerriko hizkuntza. Alabaina, horrek ez du esan nahi, besterik gabe, umeak direlako hobeto eta azkarrago ikasten dutenik: “Baldintzak ez dira berdinak. Hizkuntzarekin duten harremana estua da, eskolak ingelesez jasotzen dituzte eta lagunak hizkuntza horretan egiten diete”. Hau da, eguneko ordu asko ingelesean murgilduta dabilta, ziurrenik gurasoak ez bezala. Dena dela, iker-

keta horietan umeago hasi direnek abantaila-txoren bat badutela frogatu da. 4-5 urteko etorkina eta haren 9 urteko anaia edo arreba alderatuz gero, txikia atzerriko hizkuntza hobeto menderatzera iristen da. Goizago hasteak beraz, badu onura gehiago egoera horretan, ez ordea ingelesa astean bi orduz baino usaintzen ez duen haurrarenan.

Ez du, orduan, abantailarik txikitik has-teak? “Ahoskeran hobeto moldatzen direla esaten da. Baina hemengo irakasleekin eta bi orduz arituta? Ezta akademian jatorrizko irakaslearekin arituta ere. Ahoskera lortzeko hizkuntza input masiboa behar da”. Hobekuntzaren bat aurkitzekotan entzumena eta hitz egiteko lasaitasuna aipatu ditu Cenozek, jakinda ez dagoela inolako ikerketatan frogatuta: “Agian, entzumena pixka bat gehiago... Agian, (nahiz eta ondo ez esan) gauzak esaterakoan ez dira hain urduri jartzen...”.

A eremuan euskara ikasi duten ikasleengan erreparatzeko eskatu digu Cenozek, ingelesa-



**“Ez zait iruditzen 8 urterekin ingelesa ikastera itzuliko garenik, gurasoek, ikastetxeek eta gizarteak ez lukete onartuko”**

Jasone Cenoz  
EHUko irakaslea

ren irakaskuntzarekin aldera dezakegula uste du: “Astean hiru bat orduz aritzen dira, zerbait ikasten dute, baina ez da zoragarria. Ingelesa baino ordu gehiago ikasten dute euskara eta emaitza badakigu zein den”.

Beraz, ez du zentzurik 4 urterekin hasteak? Lehenera itzultzea hobe, 8 urterekin ikastera? “Agian 8 urterekin hasi eta intentsiboagoa eginda hobeto litzateke, agian bai, baina ez dago frogatuta. Ez zait iruditzen lehenera itzuliko garenik, gurasoek, ikastetxeek eta gizarteak ez lukete onartuko”. Cenozek ontzat jo du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ingeles ordu gehiago emateko erabiltzen den sistema, alegia, ikasgaiak ingelesez irakastea.

Ingeles goiztiarra ezartzearen abantailarik apenas kontatu digun Cenozek, baina argi utzi du astean bi orduz aritzeak haurrei kalterik ez diela sortzen. Euskara ikasteko adibidez, ez du trabarik eragiten.

### **Uri Ruiz Bikandi: “CLIL ereduak inguru elitistetan du arrakasta”**

EHUn, Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskolan Hizkuntzaren Didaktika irakaslea da Uri Ruiz Bikandi. Haren ustez, ez du merezi 4 urterekin hastea, ingelesa tantaka ikastea, eta gainera, alferrikako gastua dela iruditzen zaio. Orokorrean, ez dio zentzurik hartzen



**“Sare publikoan ikastetxeek ingeles ikasketa 8 urtetik 4 urtera jaitea eskatu zutenean, hori egiteko arrazoi pedagogikoez galdetu nien irakasleei. Ez zekiten erantzuten”**

Uri Ruiz Bikandi,  
EHUko irakaslea

eta gutxiago gure egoeran: “Euskararekiko konpromisoa baldin badugu, inportanteena euskarari ahalik eta leku gehien ematea da, momentu batetik aurrera beste hizkuntza batzuk sartzeko. Ingelesa goiz sartuta euskararentzako zeneukan esparrua gal dezakezu. Nafarroan hori egin dute”. Ez du uste beste hizkuntzei kalte egiten dienik ingelesa ordu gutxiz irakasteak –Jasone Cenozen eta Carmen Muñozen ikerketak aipatu ditu–, baina bai eskolako bizimodua, hezkuntzaren planteamendua, aldrebesten duela, gero lorpen kaskarrak izateko.

Orduan noiz da egokia ingelesa ikasten hastea?. “Geroago eta sendoago has daiteke. Hizkuntzak ikasteko umea izateagatik bakarrik abantailak dituenik oso zalantzan dago, badirudi ahoskeran eta sintaxian baduela abantaila umeak, baina hizkuntza oso kantitate handitan jasotzen duenean”. Murgiltze erduan dena euskaraz ikasten duten gaztelania hitzunen adibidea jarri digu. Ikasle horiek etxean eta kalean gaztelaniaz egiten dute eta ikastetxean dena euskaraz. Haurrak izaki, jatorrizko hizkuntza ere orduan ari dira ikasten, malgu daude. Baldintza horietan, litekeena da haurtzaroa abantaila izatea euskara





DANI BLANCO

**“Geroago hasi eta diru baliabide berberak jarriko balira, eta beste era batera egingo balitz, adibidez ikastalde txikiagoetan edo gela berean bi irakasle sartuta...”**

**Itziar Elorza,  
EHUko irakaslea**

ikasteko, baldin eta bigarren hizkuntza-ordu, euskara-ordu piloa sartzen bazaizkie.

Ruizi bi osagai iruditzen zaizkio garrantzizkoak gai honetan: noiz hasi ikasten –azaldu berri duguna–, eta CLIL irakats eredua (Content and Language Integrated Learning). EAEn Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratua izena hartzen du. Ikastolen Elkartearen Eleanitz egitasmoa horretan oinarritzen da. Gero eta hizkuntza gehiago integratu nahi dira hezkuntza sisteman eta ez dago ordurik denetarako. Beraz, atzerriko hizkun-

tza ikasteko orduak gehitu beharrean, ikasgaiak irakasten dira hizkuntza horretan. Labur esanda horixe da CLIL. Ruizen ustez, Amos Paran ikerlariaren lana gogoan (*Content and Language Integrated Learning: Panacea or Policy Borrowing Myth?*), eredu horrek inguru elitistetan du arrakasta: “Ikasleek hizkuntza ez badute menderatzen ezin dute ikasgaia menderatu. Murgiltze ereduan euskaraz, oro har, ikasleek oinarri sendoagoa dute eta ikasgaietan molda daitezke, baina ingeles maila askoz baxuagoa da eta ikasgaia menderatzeko maila behar da”. Irakasleek ingeles maila, kultura maila orokorrean, altua badute, ikasleek inguru sozio-kultural oso jantzia badute... bide erdia eginda dagoela uste du Ruizek, hau da, CLIL ikastetxe guztietarako proposatzerakoan kontuz ibili behar dela, jende xehearen kontrako jokabidea izan daitekeelako. Finlandiako adibidea gogorarazi du, ikasleen %14 baino ez da ari CLIL ereduan ikasten, “eta irakaskuntzan aitzindariak dira, puntako irakasleak dituzte, hezkuntzan berdintasun soziala gorena da... Horrek denak laguntzen du emaitza onak izaten”.

Ingeles goiztiarrak abantaila nabarmenik ez badu zergatik mantentzen da? Ikastolen Elkarte 1991-1992 ikasturtean hasi zen probatzen hainbat ikastetxetan ingeles goiztiarra 4 urtekoengan. Gero, ikastola guztietara zabaldu zuten eta Eusko Jaurlaritzak sare publikora. Garai hartan, eredia eskola publikoan ezartzen hasi zen urtean, Ruiz irakasle askorekin elkartu zen eta galdetu zien zein arrazoi pedagogikoren arabera erabaki zuten haien eskolan 4 urterekin hastea: “Ez zekiten erantzuten. Ikastetxeek 4 urterekin edo 8 urterekin hastea aukeratu zezaketen, gehienek 4rekin hastea eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari, ikastolek egina zuten bezala. Izan ere, ingelesa hain goiz ematen hastea bezeroak irabazteko edo ez galtzeko lehiaren lehen pausoa izan zen”. Ruizen ustez, serioak bagina kalkuluak egin behar genituzke, 4 urtere-



**Bartolo**  
taberna - jatetxea

**Euskal sukaldaritzan eta pintxotan  
aukera zabala**

Fermin Calbetón, 38  
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279  
[www.casabartoloetxea.com](http://www.casabartoloetxea.com)

## HEZKUNTZA

kin ingelesa tantaka irakasteak dituen abantailak aztertzeke, eta Nafarroan gertatu den bezala, euskararen irakaskuntzari kalte ez egiteko.

### Itziar Elorza: “Ez dago ikerketarik esaten duenik euskara kaltetan atera denik”

EHUn, Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakaslea da Itziar Elorza. 2011n tesia bukatu zuen, Ikastolen Elkartek 1991-1992 ikasturtean abian jarritako Eleanitz proiektuari buruz. Unibertsitatean lanean hasi aurretik, 25 urteko ibilbide profesionala egin zuen Ikastolen Elkartearen, eta 2004tik 2011ra Ikastolen Elkartearen hizkuntz ardura izan zen.

Tesian, Ikastolen Elkartek 20 urtean egingo dako lanari berme akademikoa eman diola esan digu. Eleanitz proiektuak lau hizkuntza kudeatzen ditu (euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa), Ruizek aipatu duen CLIL eredu da oinarria eta ingelesa ikasten 4 urterekin hasten da. Sarrera goiztiarrari dagokionez, duela 20 urte alderaketa egiteko aukera izan zuten. Ikastola batzuk 4 urterekin hasi ziren eskolak ematen eta beste batzuk 8rekin. Bi taldeak konparatu zituzten hamabi urtez eta ondorio honetara iritsi ziren: 4 urterekin hasitakoek ingelesean maila hobea zuten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaieran. Pentsa dezakegu beraz, lehenago hasteak eragin duela alde hori. Alabaina, Elorzak ez digu horrelakorik baieztatu: “Ezin dut esan 4 urterekin hasi zirelako izan denik, proiektu berezi baten partaide izan zirelako baizik”. Eleanitz egitasmoan ondoko osagaiak hartu zituzten kontuan: metodologia lan jarraitua; ikerketa kalitatean lan handia; proposamen didaktikoari eta curriculumari jarraipen izugarria; irakasleen prestakuntzan ahalegin izugarria; gurasoekin, irakasleekin, klustroekin bilkurak... Horiek eta beste hainbeste osagai aipatu ditu Elorzak. Hau da, indar, baliabide eta jakituria metaketa handia egin zen proiektuan. Lanketa ikaragarriak ahalbidetu du talde esperimentalak beste taldeak baino emaitza hobek izatea.

Elorzaren ustez, Ikastolen Elkartek Haur Hezkuntzan egiten duen lana ikusita, onurak baditu. “Ohiko ebaluazio linguistikoetan ezin

dira neurtu, baina litekeena da komunikazio gaitasunean hobeto aritzea edota ingelesarekiko sentipen egokiagoa izatea. Irakasleek sumatzen dituzte horrelakoak”. 4tik 8 urtera bitartean ingelesa irakastea gizartearentzat errentagarria den galdetuta, dudakoa izan daitekeela erantzun digu: “Geroago hasi eta diru baliabide berberak jarriko balira, eta beste era batera egingo balitz, adibidez ikastalde txikiagoetan edo gela berean bi irakasle sartuta...”. Cenozen eta Ruizen ildotik, iritzi dio ez dagoela miraririk, nahiz eta hasierako urte haietan uste izan zen txikiak izaki, berehala ikasiko zutela ingelesa. “Haur txikiak izugarriko gaitasuna dute hizkuntzak bereganatzeko, baina testuinguru naturalean, input izugarria dutenean, ez astean bi ordu-txoz eta irakasle bat 25 umerekin”.

Elorza ez du ingelesak kezkatzen, euskarak baizik. Elorzaren tesian eleaniztasuna onuragarria dela sostengatzen da eta hori frogatzeko hainbat erkaketa egin zituen. Ingelesa goiz sartzeagatik eta ikasgai bat ingelesez emateagatik euskarak eta gaztelaniak ez zuten kalterik jasan, alderantziz, gaztelania hitzunik euskara gehiago ikasi zuten, eta bai euskal bai gaztelania hitzunik emaitza hobek izan zituzten gaztelaniako probetan. “Ez dago ikerketarik esaten duenik euskara kaltetan atera denik”. Elorzaren iritziak, kontua ez da noiz hasten zaren ingelesa ikasten baizik eta nola egiten duzun. “Ikastolen Elkartearen ez da inoiz aztertu ingelesa bere aldetik, beti hizkuntza guztiak batera hartu dira”.

Gurasoak aztoratuta dabilta, neska-mutilak Haur Hezkuntzan hirugarren hizkuntza ezagutzen hasi dira, eta gutxi delakoan akademiara daramatzate. Eleanitz proiektua abian jarri zutenean akademiak saihestuko zituztela uste zuten: “Eskolak ondo egiten badu ez dago beharrik kanpoan lan osagarriak egiteko. Kontrako eragina sortu genuen, ordea. Ingelesaren presioa eragin zen”.

Urtebeteko haurrak akademiara eramateko iragarkiak entzuten ari gara. “Ez du merezi. Kalterik ez dio egingo, baina esan dugu, adin horretako umea egunean bost orduz jartzen baduzu ikasiko du ingelesa, baina gizarte honetan euskararekin egin beharko dugu hori, ezta?”.

Eta ingelesaren zama kokotean dugula gabiltzala, euskara kontuetan ez ote garen lasaitu aipatzen hasi gara. Gurasoentzat errazena ez ote den haurrek ingelesa ikas dezaten baliabideak eskura jartzea, eta ez ote den askoz konplikatuagoa umeek euskaraz egiten ezaten, gurasoak eredu izatea; alegia, erdaraz egiteko ohitura aldatzea. Baina hori hurrengo baterako utziko dugu. ■



## Beharrezkoa

**Cenoz, Ruiz Bikandi eta Elorza, hirurak ados dira ingelesa beharrezko bihurtu dela esaterakoan. Gizarte globalizatuan bizi gara, ingelesa *lingua franca* da. Ikasketetarako, interneten informazioa bilatzeko, Europara begiratzeko, behar omen dugu. Horrek ez du esan nahi maila gorena lortu behar denik eginkizun horiek taxuz egiteko.**